

BATERAJOTZEAREN AURKEZPENA

HELBURUA: Euskal Herriko Neska* Gazteon Baterajotzearen kokapena egitea, neska* gazteei parte hartzeko gonbitea egitea eta herrietako antolaketa irudikatzen hastea.

MATERIALA: post-itak, boligrafoak , proiektorea, power pointa.

METODOLOGIA:

1.AZALPENA (20'): Baterajotzearen kokapena egin eta zalantzentzat tarte bat utziko dugu

2.AZALPENAREN OSTEAN (10'): Denon artean ondorengo galdera erantzungo dugu: “Zergatik joan Baterajotzera?”

Bakoitzak bere erantzuna post-it batean idatzi eta partean itsatsiko du. Ostean, dinamizatzaileak ahoz goran irakurriko ditu

3.ANTOLAKETA (40'): Hemendik eta Baterajotzerako urratsak irudikatuko ditugu kronograma batean.

Baterajotzera joateko barne-antolaketari ekingo diogu.

Galdera lagungarriak:

Whatsapp talde bat sortuko dugu?

Jendea etortzeko nola egingo dugu?

Ekintzaren bat egin nahi dugu?

Nola antolatuko ditugu busak? (zerrenda pasatzen hasi...)

Kanpin dendak?



1. AZALPENA



Sarrera gisa, Baterajotzearen kokapena egingo dugu. Hasieran testuinguruaren irakurketa txiki bat egingo dugu, eta ostean sartuko gara modu zuzenagoan Baterajotzeaz hitz egitera.

TESTUINGURUA:

Azken urteotan areagotu egin dira mundua amaituko denaren eta distopiara bidean goazenaren mundu ikuskerak.

Bien bitartean, bizitza vs kapitalaren arteko talka areagotu egin dela ikusten ari gara: prekaritatean murgildurik eta lanerako bizi gara, eta gero eta gehiago dira eraso arrazista, klasista eta matxistak. Familia eredu heteronormatiboak osatzera bultzatzen gaituzte, hori omen baita etorkizun zorientzua izateko egin beharrekoa. Beraz, esan genezake distopia ez dela etorkizuneko zerbait, orain bizitzen ari garen unea baizik, sistema kapitalista zisheteropatriarkal kolonialaren lurreratzea.

Argi dugu gure kontra egunero erreproduzitzen den sistema distopiko hau guk ez dugula erreproduzitu; orain da antolatzeke unea, iraultza feministara batzekeoa, erresistentzia egitekeoa. Erresistentziaz beste-lako munduak irudikatzeke saltoa ere ezinbestean eman behar dugu. Utopiak lehertu behar ditugu eta gaurdanik eraiki, txikitasunetik sortu osotasuna eraldatzeko an-bizioaz.



Aipatutako bizitza vs kapitalaren talka honetan zaintza lanen pribatizazio eta merkantilizazioan sakondute. Zaintza eskubidea izatetik urrun, pobrezia eta betebeharrak gisa inposatzen dituzte sistematikoki erakunde publikoek, enpresek eta gizonek. Modu disparekoan, doakoan edo prekarizatuan egiten dugu lan. Eta hau ez da kasualitatea; ezinbestekoa zaie botere kapitalista, patriarkal eta kolonialeari, biziraun dezaten.

Horregatik, zaintza-sistema irauliz beste sistema bat irudikatzea posible delako, alternatibak gaurdanik eraikitzeari ekin behar diogu. Utopiak sortzeko bidean ezinbestekoa izango zaigu Mugimendu Feministatik udazkenean deituko dugun Greba Orokor Feministaz baliatzea. Grebaren bitartez borroka artikulatu eta mugimenduak hauspotu, urgentziazkoak diren aldaketak abiarazi, arrakalak sortu eta eraldaketan sakontzen joateko aurrebaldintzak sortuko ditugu. Langile klasearen tresna historikoa da greba, Mugimendu Feministak forma berri bat ematen jakin duena eta martxan jartzea dagokiguna, emakumeak, langileak, migratuak, bollerak, denok helburu estrategiko partekatuen baitan artikulatzeko gaitasuna duena.

Mugimendu Feministak denbora darama mobilizazio gaitasun ikaragarria erakusten. Honen erakusle dugu, 2019ko Martxoaren 8an burututako Greba Feminista. "Heteropatriarkatu kapitalistari planto" lelopean kaleak hartu genituen, bizitzak erdigunean jartzeko aldarria eginez. Bost ardatzetan antolatu genuen greba: pensiodunena, ikasleena, zaintzarena, enpleguaren arlokoa eta kontsumoarena. Berrero ere dugun potentzialtasuna baliatuko dugu zaintza eskubide izatea eta lan honen gaineko erabaki gaitasun kolektiboa edukitzea exijitzeko, gazte bezala ekarpen propioa eginez.



BATERAJOTZEA:

AURREKARIAK

Urrian izango dugun Baterajotzea ez da izango Neska* Gazteok elkartu eta batera hausnartu zein ekiteko izan dugun topaleku bakarra. Esperientzia ezberdinak partekatu izan ditugu, mugimendu bezala gorpuzten lagundu digutenak:

2016. urtean egin ziren Barañainen Gazteraiki Euskal Herriko gazte mugimenduen topaketak. Bertan, ardatzetako bat izan zen feminismoa eta, hiru egunez, 100 neska* gazte inguru gaztetasunetik feminismoan egin beharrekoez hausnartzen eta proiektuak irudikatzen aritu ginen. Bertan, ondoren Euskal Herriko Neska* Gazteak izena hartuko zuen mugimenduaren lehen ideiak sortu ziren.

2017. urtean antolatu genituen lehen udaleku feministak Ozaetan eta 2018. urtean ospatutakoek jarraitu zieten, herri ezberdinetako gazte mugimenduetatik sortutako Neska* Gazte taldeak urtean behin elkartzeko zuen potentzialtasunaz jabetu baikin.

Gero eta gehiago ginen neska* gazte bezala antolatzen genbiltzanak eta espazio handiagoak behar genituen, erronkak partekatu eta gainerako herrietako errealitateak ezagutzeaz gain, mugimendu bezala aliatu eta elkargunerako gune iraunkorrak sortzeko.

Hala eta, 2019. urtean EHMFn jardunaldiak zetozenez gero eta bertan guk ere gazte feminista gisa ekarpena egitea ezinbestekotzat genuenez, Lizarran “Egin dezagun topa!” jardunaldiak ospatu genituen.



2021eko urrian lehenengo Baterajotzea burutu genuen Elizondon eta 600 neska* gazte inguru batu ginen bertan. Pandemia baten erdian harrapatu gintuen eta agerian geratu zen Mugimendu Feministak hainbeste aldiz errepikatu eta salatutakoa: bizitzak vs kapitalaren talkan kapitala lehenesten dela, sistemaren antolaketa hau sostengaitza delarik. Pandemian sektore zabalak izan ziren kolpatuak, horien artean gurea, Neska* gazteon sektorea, bizi prekaritatea areagotuz. Neska* gazteok krisi momentu hau aukera bezala baliatzearen aldeko apostua egin genuen eta, hala, krisi anizkoitz honen aurrean zer paper dugun eta nola erantzungo diogun eztabaidatzeko, Neska* Gazte subjektua berrezugarritzeko eta mugimendu gisa indarberritzeko elkargunea izan zen Baterajotzea.

2022ko udan Udaleku feministak egin genituen Artean. Bertan, Euskal Herriko txoko ezberdinetako hainbat neska* gazte biltzearekin batera, herri bakoitzeko problematikak elkarbanatzeko aukera izan genuen. Elkar ezagutzeko, saretzeko, hausnartzeko, ideiak elkarbanatzeko, gozatzeko eta dagoeneko aurtengo Baterajotzera begira jartzeko baliatu genuen egonaldia izan zen.

*Baterajotzearen bideo laburpena

ZERGATIK BESTE BATERAJOTZE BAT?

2021.urteko Baterajotzean indar erakustaldia egin genuen, antolakuntzarako dugun gaitasuna argi utziz. Oraingo honetan, zaintzaren auzia eztabaidatzea dago-kigu, guk ere honen inguruan badugulako zer esana. Honetaz gain, sistema bortitz eta distopiko honetan utopia berriak irudikatzea beharrezkoa zaigu. Honetarako tresnak sortzeko eta partekatzeko, erresistentzia eta alternatiba berrietan sakontzeko eta eztabaida estrategikoak emateko espazio propio bat behar dugu. Horregatik, Greba Orokor Feministaren aurretik, Euskal Herriko gazte feministentzat elkargunea izango den Baterajotzea antolatuko dugu.

EGITARAUA

Urriaren 13tik 15era Usurbilen egingo dugu Neska* Gazteon Baterajotzea. 3 eguneko egitasmoa izango da eta bertan gaua pasatzeko aukera egongo da. Horretarako materiala eraman beharko dugu (lo zakua, esterilla, kanpin denda...).

Ostiral arratsaldean emango diogu hasiera Baterajotzeari eta igandean amaituko da egitasmoa. Hiru egun horietan zehar, askotariko eskaintza egongo da, prestatzen ari garen egitarau zabalaren baitan: hitzaldiak, tailerrak, aisialdi eskaintza...

Euskal Herriko neska* gazte guztiontzako espazioa izango da. Gazte feministok ikaragarritzko potentzialtasuna dugu, eztanda egingo dugu Baterajotzean!

**Utopiak lehertzeraino,
Neska* Gazteok Baterajotzera!**

2. AZALPENAREN ONDORENGO ARIKETA

(DOKUMENTUAREN HASIERAN DAGO JASOTA AZALPENA)

3. ANTOLAKETA

(DOKUMENTUAREN HASIERAN DAGO JASOTA AZALPENA)

